



Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia

**UDAL EKINTZA-PLANA 2017-2025**

**EGIKARITZE-LABURPENA**

2017ko abendua



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**VITORIA  
GASTEIZ**  
green capital

## 1. EKINTZA-PLANAREN ZERGATIA

2012ko Europako Hiriburu Berdearen saria Vitoria-Gasteizi eman ondoren, eta elikadura osasungarriarekiko biztanleen interesa gero eta handiagoa dela jakin badakien erakunde-talde aktibo baten bitartez, Udalak Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia sustatzea erabaki zuen, kalitatezko elikagaien tokiko produkzioaren eta elikagai horiek hirian kontsumitzearen artean konexio bat lortzeko helburuarekin.

Udal-mugarteko baldintza bikainek (hiri-bilbea inguratzen duen nekazaritza-eraztun zabalak eta kalitate agrologiko bikaineko lurrek) estrategia hori garatzearen aldeko apustua egitera bultzatu gintuzten, ekoizpen iraunkorraren zirkuitu laburrak bultzatzeko eta produktuak udal-nahiz eskualde-eremuan merkaturatzea eta kontsumitzea sustatzeko helburuarekin.

Bestalde, Milanen 2015eko urriaren 15ean Europako 100 hirik sinatutako Hiriko Elikagaien Politika Itunak (Vitoria-Gasteizek ere itun harekin bat egin zuen) egiaztatu zuen hartutako bidea zuzena zela. Horiek horrela, 2012an hasitako lanak sustatu eta Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Plana 2017-2025 gauzatzeko konpromisoa hartu zen.

Plan horren bidez, Udalak ekoizpen jasangarriari eta kalitatezko elikadurari buruzko hainbat ekintzari heldu nahi die, planean barne hartutako prozesu desberdinen ikuspegi integrala bilatuz. Aldi berean, beste ekoizpen- eta kontsumo-mota batzuen aldeko apustua egiten duten eragileekin (tokiko nekazari eta abeltzainekin, kontsumitzaileen elkarteekin, merkatariekin...) inplikatu eta lankidetzan aritzeko eragile gisa jarduteko xedea du Udalak.

Hortaz, esan daiteke, udal-ekintza mobilizatzeaz gain, pixkanaka-pixkanaka interesdun guztien arteko harremanak indartzeko plan bat ezarri nahi dela, Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia guztiok batera garatu dezagun.

## 2. ZER EGIN DA ORAIN ARTE?

2012an, Gasteizko elkarte-talde batek hausnarketa-prozesu bat gauzatu zuen hiriko nekazaritzako elikagaien sistema hobetzeari buruz; izan ere, etorkizun jasangarri bat lortzeko bidean jorratu beharreko erronketako bat da hori. Lan kolektibo horri esker, **“Vitoria-Gasteiz, nekazaritzako elikagai-sistema jasangarriaren alde”** adierazpena sinatu zen 2014an. Dokumentu horretan, abiapuntuko egoeraren azterketa oinarritzat hartuz, hainbat ildo estrategiko posible planteatu ziren egungo nekazaritzako elikagaien eredia pixkanaka aldatu eta lurraldeko ezaugarri eta tradizioekin bateragarria den sistema jasangarriago bat inplementatzeko.

2014ko martxoan, Vitoria-Gasteizko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Nekazaritzako Elikagaien Udal Plan bat egitea, arlo horretan interesatutako erakundeen, elkarten eta herritarren laguntzarekin. Horri esker, Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia definitzeko prozesua sustatu zen.

2015ean, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (IGI), strategiaren garapena aurrera eramateko ardura bere gain hartu zuenak, udalerriko nekazaritzako elikagaien aurretiko analisi bat egin zuen, hartara, eztabaidarako oinarritzko materiala sortu eta diagnostiko parte hartzaile bat egiteko, lortu nahi zen ikuspegiarekin bat eginik. Agiri hura 2016an egindako parte-hartze izaerako prozesuan eztabaidatu zen, eta elikadura-eredu berria eraikitzeko tresnatzat jo zuten parte hartzaileek.

Hausnarketa eta parte-hartze prozesu horri esker “**Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra eraikitzeke oinarriak**” deritzon dokumentua egin zen (lehenetsitako 21 helburu eta horietako bakoitzari esleitutako neurri jakin batzuk biltzen dituena). Hain zuzen ere, dokumentu hori oinarri hartuta sortu du Udalak “**Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Plana 2017-2025**”, udal-ekumenen esparruan alderdi garrantzitsuenetan eta interesekoak izan daitezkeen bestelako alderdietan aurrera egiteko asmoz.

### 3. LAN-METODOLOGIA

Ekintza-plana egiteko, honako eskema metodologiko honi jarraitu diogu:

- **1 Fasea. ANALISIA: Eskura dagoen informazioa ebaluatu eta intereseke erreferentzia berriak identifikatzea.**

Fase honetan, eskura zegoen dokumentazioa kritikoki aztertu eta hautatutako erreferentziatzko eragileak eta erakundeak kontsultatu dira.

- **2. Fasea. SORKUNTZA: Ekintza-planaren esparruan garatu beharreko Ekintzen Aurretiko Proposamena.**

Fase honetan, sailen arteko lan-bilerak egin dira, eta planaren aurretiko esparrua garatu da esparru estrategikoaren “Diagnostikoa” (2015) eta “Oinarriak” (2016) dokumentuak kontuan hartuta.

- **3. Fasea. ITZULKETA: Ekintza-plana kontrastatu eta baliozkotzea.**

Fase honetan, sailen arteko batzordeak egin dira eta kontraste- eta iritzi-saio bat egin da herritarrekin eta interes-taldeekin.

- **4. Fasea. SOZIALIZAZIOA: Ekintzen behin betiko proposamena eta 2017-2025 aldirako Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Planaren azken txostena idaztea.**

Proposamena baliozkotu ondoren, ekintza-planaren azken dokumentua egin da, prozesu osoan zehar jasotako ekarpenak barne hartuz.



### 4. EMAITZAK

Ekintza-plana gaikako lau lerro estrategikotan eta horien artean zeharkakoa den beste lerro estrategiko batean oinarrituta dago. Lerro horietako bakoitzak ekoizpen jasangarriaren eta kalitatezko elikagaien inguruko hainbat ekintza barne hartzen ditu, udal-ekumenen barruan daudenak.

Bildutako lerro estrategiko eta ekintza guztien garapen osoa bermatzeko, planaren jarraipenari eta aldizkako berrikuspenari buruzko alderdiak definitu dira, aurrerapen-maila ebaluatzeko, zailtasunak antzemateko eta desbideratzeak zuzentzeko, hartara, gura diren helburuak lortzen laguntzeko.

Jarraian agertzen den taulan lerro estrategiko bakoitzari dagozkion ekintza guztiak jaso dira, helburuekin batera.

Lerro estrategikoak	Ekintzak	Helburuak	Aurreikusitako aurrekontua *
	<b>1. HIRIGINTZA-ARAUDIA VITORIA-GASTEIZ UDALERRIKO NEKAZARITZA JARDUERA JASANGARRIEN GARAPENARI EGOKITZEA</b>	1.1 2017-2025 aldirako Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Planaren jarraibideak Hiri Antolamenduko Plan Orokor berrian sartzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>Lurraren antolamenduari buruzko araudiaren eta Nekazaritzako Elikagaien Udal Estrategiaren ondoriozko planteamenduen arteko koordinazioa bermatzea.</li> </ul>	Barne baliabideak
	<b>2. PROIEKTU ERAKUSGARRIAK ETA JASANGARRITASUNAREN ALDEKO EKINTZAK GARATZEA, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEAREN BARRUAN EKINTZEN EZARPENA SUSTATZEKO</b>	2.1 Udal-lurren bankua. <ul style="list-style-type: none"> <li>Udal-lurzoruaren ondarea berrikustea eta eguneratzea.</li> <li>Identifikatutako partzelak bereiztea: egungo egoera fisikoa, jabetza eta ustiapen erregimena, epe ertainean erabiltzeko aukerak...</li> <li>Nekazal ekintza ekologikoak har ditzakeen lurren banku bat eratzea, tokiko elikagai osasungarrien ekoizpena sustatzeko, era berean, enplegu berdea sortuz.</li> </ul> 2.2 Las Neveras muinoko proiektu erakusgarria. <ul style="list-style-type: none"> <li>Nekazaritza eta abeltzaintza izaerako ekimen bat sustatzea, balio ekologikoa eta kontserbazio handia duen tokian.</li> <li>Sektore publiko eta pribatuaren arteko ekimenak garatzeko metodologia identifikatzea.</li> </ul> 2.3 Basaldea proiektua. <ul style="list-style-type: none"> <li>Arabako nekazal produktu ekologikoen ekoizpenaren eta banaketaren inguruko enplegua eta negozioak sortzea epe ertainean.</li> <li>Produktu ekologikoen banaketa- eta merkaturatze-bideak diseinatzea eta balio-katearen eragile desberdinen artean sinergiak sortzea.</li> <li>Erreplikagarritasuna errazteko prozesuaren lan-metodologia zehaztea.</li> </ul> 2.4 Abetxukoko parke agroekologikoa. <ul style="list-style-type: none"> <li>Vitoria-Gasteizko hiri-inguruko nekazaritza-jarduera berreskuratzea eta indartzea.</li> <li>Eratzun Berdea Abetxuko auzo eta herrira hurbiltzea.</li> <li>Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren testuinguruan elikagaien produkzioaren eta kontsumoaren arteko harremana indartzea.</li> <li>Tokiko landa-eremuei buruzko sentsibilizazio- eta gizarte-topaketak egiteko gune bat sortzea.</li> </ul> 2.5 Otazu mendian basogintza- eta artzaintza-ustiapena txerriekin. <ul style="list-style-type: none"> <li>Artzaintzak zuhaitzen hazkundearengan daukan eragina aztertzea, baita osagai edafikoengan eta hariztien flora baskularraren biodibertsitatearengan daukan eragina ere.</li> <li>Baso iberiar-atlantikoaren baliabideak baloratzea.</li> <li>Sistemaren karbono-zikloa aztertzea.</li> <li>Erregimen estentsiboko elikadurak txerri-arraza desberdinen kalitate nahiz ekoizpenean duen eragina zehaztea.</li> <li>Hainbat parametroen egokitasuna ebaluatzea basogintza- eta artzaintza-ekosistemaren funtzionamenduaren adierazle gisa.</li> </ul> 2.6 Vitoria-Gasteiz udalerriko nekazaritza-barietate tradizionalak aztertzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerriko barietate tradizionalak, baita horien erabilerak ere, ezagutzea.</li> <li>Barietate tradizionalen inbentario bat egitea (izenak eta erabilerak).</li> <li>Ezagutza agroekologikoa eta erabilpen herrikoiak biltzea.</li> <li>Aztertutako material genetikoak epe luzerako biltegitratzea eta baldintza egokietan kontserbatzea.</li> <li>Ikerketan zehar bildutako informazioa zabaltzea.</li> </ul> 2.7 Lermenda ingurune ingurumena biziberritzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>Lurraldeko nekazaritza-jarduera, landa-nortasunaren kontserbazioa eta sustapen ekonomikoa bateragarri egiteko proiektu bat garatzea.</li> <li>Lermenda eremuaren konexio ekologikoaren eginkizuna sendotzea (Vitoria-Gasteizko mendien eta Zadorraren artean).</li> </ul> 2.8 Tokiko nekazaritza ekologikoko produktuen eskaintza sustatzea Azoka Plazan. <ul style="list-style-type: none"> <li>Logistika eta banaketa laguntza-zentro integratu bat sortzea.</li> <li>Balio-katearen eragileen artean lan koordinatua bultzatzea.</li> </ul> 2.9 Nekazaritza ekologikoko produktuen manipulazio eta lehen eraldaketa zentroa sortzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>Produktu ekologikoak ekoizten dituzten jarduera ekintzaileei lehenengo eraldaketarako operazioak erraztea.</li> <li>Lehen eraldaketarako zentro bat eraikitzearen bideragarritasuna ebaluatzea.</li> </ul> 2.10 Erkidegoko Konpostaje Programa udalerriko landa-ingurunean, Vitoria-Gasteizko landaguneetako hiri-hondakinak biltzeko eta garbitzeko kontratu berriaren bidez. <ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinen tokiko kudeaketa eta materia organikoaren zikloaren itxiera sustatzea.</li> </ul> 2.11 Materia organikoaren gaikako bilketa hobetzea, kalitatezko konposta ekoizteko. <ul style="list-style-type: none"> <li>Bilketa-eredu eraginkorragoak sustatzea.</li> <li>Materia organikoaren gaikako bilketaren indizeak handitzea.</li> <li>Bildutako hondakin desegokien ehunekoa murriztea, lortutako konpostaren kalitatea hobetzeko.</li> </ul> 2.12 Ekoizle handien janari soberakinak murrizteko programa. <ul style="list-style-type: none"> <li>Sortutako hondakinak murriztea.</li> <li>Kontsumoa arrazionalizatzea.</li> <li>Elikadura-pobrezia eta gizarte-bazterketa arintzea.</li> </ul> 2.13 Elikadura burujabetza eta bidezko merkataritza garatzeko hezkuntza- eta lankidetzaren programak. <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalak eskaintzen dituen garapenerako lankidetzaren eta hezkuntza-programen bidez jorratzen diren gai desberdinen artean honako hauek barne hartzea: elikadura burujabetzari eta bidezko merkataritzari lotutako gaiak.</li> </ul>	18.000 € 225.000 € (I. fasea) 89.000 € 1,5 M € (Ancora eraikinaren egokitzapena) Barne baliabideak 26.100 € (I. fasea) 80.000 € (I. fasea) Barne baliabideak Barne baliabideak 142.000 €/urte + 60.000 € (sistema hobetzeko azterlana) 60.000 € 45.000 € Barne baliabideak

Lerro estrategikoak	Ekintzak	Helburuak	Aurreikusitako aurrekontua *
 <b>3. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN BIDEZ PRODUKTU EKOLGIKOEN ETA HURBILEKO PRODUKTUEN ESKAERA SUSTATZEA</b>	3.1 Vitoria-Gasteizko Udalaren "Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra egiteko Jarraibidea" ezartzea udal-erosketetan eta kontratuetan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zerbitzu/produktu jasangarriak erostearekin zuzenean lotutako irizpide zehatzak zehaztea.</li> <li>Kontratazio publikoko prozesuetan irizpide horiek pixkanaka barne hartzen direla bermatzea.</li> <li>Ezarpenera bultzatzen duen sailen arteko lan-fluxua konfiguratzeko.</li> </ul>	Barne baliabideak
	3.2 Eusko Jaurlaritzaren Erosketa Berdearen Programarekin bat egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Vitoria-Gasteizko Udalaren konpromisoak bat egitea Euskadin dagoeneko zehaztuta dauden jarraibideekin.</li> <li>Udalaren ahaleginak Eusko Jaurlaritzaren programekin bateratzea, sinergia positiboak bilatuz erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko.</li> </ul>	Barne baliabideak
	3.3 Hurbileko elikagai ekologikoak sustatzea udal haur-eskoletan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jangela zerbitzua erabiltzen duten haurrei elikagai osasuntsuak eskaintzea.</li> <li>Jangela zerbitzua erabiltzen duten familien artean hurbileko elikagai ekologikoak sustatzea.</li> <li>Haur-eskolen sukaldean mantenua.</li> </ul>	126.500€
 <b>4. HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA ETA SENSIBILIZAZIOA ELIKAGAIEN EKOIZPEN ETA KONTSUMO JASANGARRIAREN ONUREI BURUZ</b>	4.1 Ingurumen Hezkuntza Programetan pedagogia- eta sentsibilizazio-ekintzak barne hartzea, hartara, ekoizteko, erosteko, kontsumitzeko eta hondakinak kudeatzeko moduetan aldaketa kulturalari bide emateko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elikagaien ekoizpena eta kontsumo jasangarriaren balioak sustatzea udal-programetan.</li> <li>Hartzaileren profilen arabera, mezu argiak eta garrantzitsuak aurkeztea programatutako ingurumen-hezkuntza ekimenen diseinuan.</li> <li>Elikagaiak erosi eta kontsumitzeko eguneroko jardunbide jasangarriak gauzatzeko trantsizioan herritarrak laguntzea.</li> </ul>	110.000 €
	4.2 Elikatzeko modu osasungarriagoen aldeko aldaketa kulturalaren aldeko pedagogia- eta sentsibilizazio-ekintzak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elikagai osasungarriak kontsumitzeko ohiturak bultzatzea udal-programen bidez.</li> <li>Elikagaiak erosteko eta kontsumitzeko ohitura osasungarriak sustatzea herritarren eta familien artean.</li> <li>Janari-produktuen kalitatearen garrantzia azpimarratzea. Elikagaien kalitatea bermatzeko egiten diren zaintza- eta kontrol-neurrien berri ematea herritarrei.</li> </ul>	81.000 € (2017 urtea)
	4.3 Udalerriko nekazaritzako elikagai jasangarriari buruzko informazio-puntua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Nekazaritzako elikagai jasangarrien esparruan udalerrian garatzen diren ekimenei ikusgarritasuna ematea.</li> <li>Udaleko sailen eta gizarte-eragileen arteko koordinazioa sustatzea.</li> <li>Nekazaritzako elikagaien balio-kate osoan zehar elikadura-kultura zabaltzea.</li> </ul>	15.000 €
 <b>5. AURREKO LERRO ESTRATEGIKO BATZUETAN ERAGINA DUTEN ZEHARKAKO EKINTZAK</b>	5.1 Nekazaritzako elikagaien jardunbide egokiak identifikatzea eta tokiko eta/edo eskualdeko inguruetan elikadura osasungarria eta jasangarria sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Nekazaritza eta abeltzaintza jasangarriaren sustapenerako esperientzia arrakastatsuek eta eredugarriak bilatzea, analizatzea eta ebaluatzea, baita hurbileko eta ekologikoak diren elikagaiak hiritarren dietan barne hartzea ere.</li> </ul>	Barne baliabideak
	5.2 2017-2025 aldirako Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Planaren eta udaleko ingurumen-plan desberdinen arteko koordinazioa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Garatu beharreko udaleko ingurumen-plan posibleetan 2017-2025 aldirako Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Plan honetan onetsitako jarraibideak barne hartzen direla bermatzea.</li> </ul>	Barne baliabideak
	5.3 Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurzoruen Kalitateari buruzko Azterlan Agrológico bat egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerriko lurzoruen azterketa zehatza egitea horien ezaugarriak eta ingurunea deskribatzeko, aldagai edafologikoak eta ingurumen aldagaiak kontuan hartuz.</li> </ul>	70.000€
	5.4 Udal Ekintza Planaren (2017-2025) jarraipen plana.	<ul style="list-style-type: none"> <li>2017-2025 aldirako Udal Ekintza Plana osatzen duten helburu eta ekintzen aurrerapen-maila kontrolatzeko metodologia prestatu eta ezartzea.</li> </ul>	Barne baliabideak

\* Partida bakoitzari dagokion aurrekontua modu desberdinetan kalkulatu da. Zenbait kasutan, ekintza udal-langileek garatuko dute (barneko baliabide gisa adierazita); beste kasu batzuetan, proiektuaren zenbateko osoa jaso da, eta bestetan, fasetan edo urteetan banatu da aurrekontua.